


AZPEITIAN

Jaiak oso ezberdinak izango dira aurten Azpeitian

JOXANJEL ALDAI / AZPEITIA

Nahitaez, halaxe pentsatuta, edo gertakizunen indarraren ondorioz, beste urteetatik ezberdin datoz aurten Azpeitiko Saninazio jaiak. Udalak eta San Inazioaren jaiotzaren V mendeurrenako ekitaldiak antolatzen ari den batzordeak bat egin dute herriko jaiak eta V mendeurrenari dagozkionak batera prestatzeko. Alderdi horretatik askoz jai osatuagoak izango dira Azpeitia eta Loiolan. Espainiako Erregeak San Inazio eguneko meza nagusira etortzekoak dira eta horrek ere nahastu egingo du jai giroa.



eguerdi parteko ekitaldiak. Gauean musika eta sufesta emanaldia egingo da Loiolan, V mendeurrenako ekitaldiei bukaera emateko.

Aurreko urteetan hilaren 1ean Loiolan egiten ziren ekitaldiak berriz, Azpeitian izango dira aurten.


Aurten beraz, lehendik zuten baino kutsu erlijioso are handiagoa izango dute Saninazioek. Horrez gainera, Alkateak berak jaiei egiten dien agurrean dioenez, alderdi erlijiosoarekin batera, aipagarria da zezen festak Azpeitian duen indarra.

Loiola 91 batzordeak eta Udalak antolatzen dituzten ekitaldiak bat egin eta nahastuta datozkigu jai egitarauan, baina bakoitzak bere aurrekontu apartekoaz baliatuz antolatu ditu. Udalak 10.000.000 pezetako (500.000 libera) aurrekontua du aurten jaiak antolatzeko.

Espainiako Erregeak datozela eta, San Inazio bezperan tabernak ordubietarako itxi beharko zirela zioten zurrumuruak zabaldu ziren, baina Udalak zein tabernariak gezurtatu egin dituzte. Jaietan tabernak goizeko bostak inguruan ixteko erabakia hartu dute Azpeitiko tabernariak, hilaren 2tik 3rako gaupasa egunean salbu.

Saninazioek galdu egingo dute hilaren batetik aurrera, lehenengo egunetako kutsu solemne hori. Hilaren 2an txerri harrapatzeak izango dira goizeko seietan, gazteen afora 21.30etan, Lola Herreraren antzerki taldearen saioa 23.30etan, eta ondoren gaupasa ●

Arratsaldez iriti nintzen Azpeitira, Izarrazpeko maşal gozo estira. Zuzenean jo nuen Ospital handira (herriko behartuak hantxe bizi dira). Hura zen pilpira leihotik begira Uhola garbira, inguru argira! Ai umetako gauzek duten distira!



Hiru sufesta emanaldi izango dira Saninazioetan. Musikaz lagundutako berezia hilaren 31n eta beste bana abuztuaren 1ean eta 2an.

KRONIKA FRESKOA

MUSIKA NAHI ADINA. Era bateko zein beste musika maite duenak zer entzun ugari izan du eta du aurtengo Saninazioetan. Uztailean, musika klasiko nahi adina izan da; hilaren 25ean salsa musika jo zuen Cubana Tropical taldeak; eta atzo rockak izan zuen bere txanda Tijuana in Blue eta Su Ta Gar taldeen kontzertuarekin. Hilaren 30ean Aragoiko jotak kantatuko ditu Aires de Aragon taldeak eta gainontzeko guztia berbenak izango dira: Arkaitz —gaur— Nueva Etapa eta Iruña Band —30ean—, Alcatraz —31n—, Egan eta Los Pasai —1ean—, eta Brindots eta Gelatxo —2an—.

TXUPINAZOAREN ZAIN. Honez gero txupinazoaren zain daude azpeitiarrak eta hemengo Saninazioetan parte hartzeko gogoia duten guztiak. Izaenez ere, jai ekitaldi ugari ari da ospatzen aspalditxotik Azpeitian, baina jaiak hasitzat jotzeko behar da beste zeozer. Hasi direna esateko aitzaki ederrena txupinazoa entzutea da, baina hori gertatzeko astearte eguerdia arte egon beharko da zain.

KORRIDA BIKAINAK AURTEN. Azpeitiko Saninazioetako korriden antolatzaileek oso gora igo dute maila aurreko urteetan, baina aurten ere eutsi diote maila horri. Hiru korridetan Fermin Bohorquez, Andres Ramos eta Pablo Romero ganaduzaleen zezenak izango dira. Aurrean, punta puntako toreatzaileak jarriko zaizkie: Juan Antonio Ruiz 'Espartaco' eta Victor Mendes; eta Cesar Rincon, Espartaco Chico, Jose Miguel Arroyo 'Joselito', Manuel Ruiz 'Manili' eta Juan Cuellar.

GAUPASA HILAREN 2tik 3ra. Hara, egia esan, gaupasa ia egunero egiten da herriko jaietan. 'Gaupasa' egun jakin batean ezartzea txorakeria dela ere esan ohi du batek baino gehiagok. Baina jai guztietan izaten da bat, eta Azpeitiako Saninazioetan ostiraletik larunbaterakoa izango da.

Kadeteen txirringululari proba

J.A. / AZPEITIA

Bigarren urteko txirringululari kadeteen proba interesgarria jokatuko da gaur Azpeitian. Hamabost urteko txirringululari gazte hautentzat nahiko proba gogorra prestatu dute antolatzaileek. Azpeititik irten ondoren Matxinbentara joan beharko dute, handik Salbatorera hartu eta ondoren Zumarragaraino joan, gero berriro Azpeitiko kaleetara itzultzeko.

Guztira berrogeitamalau kilometro pasa beharko dituzte, gorabehera asko samar izango dituen ibilbide hau amaitu aurretik.

Irteera goizeko bederatzietan izango da Azpeitiko Plaza Nagusian eta hamaikak eta laurden ingururako iritsiko diren kontuak atera dituzte antolatzaileek.

Gipuzkoa osoko txirringululariak dira gaur Azpeitira etortzekoak. Pro-

bintzian maila honetako 180 txirringululari inguru daude federatuak, eta horietatik, hamabost taldetako 110 batek hartuko dute parte proba honetan. Tartean Aluminios Azpeitia taldekoek ere ihardungo dute.

Jaietako karrera hau antolatzen orain dela hamaika urte hasi zen Azpeitiko txirringululari elkarteak. Aurreko urteetan Azpeititik Zarautzera joan-etorria izan dute ibilbidea, baina horrelako probak antolatzeko trafikoa arazoak gero eta handiagoak dira eta, aurten aldatu egin dute ibilbidea ●



Dantzari txiki eguna da gaur.

Dantzari txiki eguna gaur da

J.A. / AZPEITIA

Dantzari txikien egun handia izango da gaur Azpeitian. Bertako Itsasi dantza taldeak antolatu eta Udalaren dirulaguntzaz aurrera aterako den egun honetan 300 dantzari inguru bilduko dira. Zumaia, Zarautz, Getaria, Mutriku eta Amurriotik hogeitamabina laguneko dantza taldeak etorriko dira, eta haiekin batera Itsasi taldeko beste 150 batek ihardungo dute.

10.00etan plazan bilduko dira gosari pasara egiteko. Gero 11.00etako

meza entzungo dute eta ondoren kaleetara sakabanatuko dira kalejiran ibili eta kalez kale dantza egiteko. 13.00etan plazan bilduko dira. Lehendabizi Agurra egingo dute denek batera. Neska guztiak batera Arku Dantza dute egitekoa eta mutil guztiak, Ikurriñ Dantza eta Banakoa.

Azpeitiko dantzarien gurasoek emango diete bazkaria beren etxetan. Talde bakoitzarekin etortzekoak diren arduradunek eta antolatzaileek berriz Gure Ametsa elkartearen jango dute —marmitakoa eta oilaskoa—.

18.00etan beste kalejira egingo dute eta 18.30etan hasita azkenengo dantza saioa plazan. Han talde bakoitzak bere saioa egingo du —bat neskek eta bestea mutilek—, eta horrekin bukatuko dira eguneko ekitaldiak. Antolatzaileen izenean Mikel Larrañagak adierazi digunez «egun ederra izan daiteke, baina horretan zer esan handia du eguraldiak ●

Gaurko jai egitaraua

- 09.00etan Izarraztxistulari taldeen kalejira.
- 09.30etan txirringululari proba bigarren urteko kadeentzat.
- 11.00etan meza nagusia Sebastian Donearen Elizan.
- 11.00etan Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketa.
- 12.00etan dantzari txikien kalejira.
- 15.00etan erraldoi eta burhandi kalejira.
- 18.30etan dantzarien saioa enparantza nagusian.
- 23.00etan berbena Arkaitz taldearekin plazan.